



Josu Agirre Goitia  
Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendaria  
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Jaun hori,

Euskadiko Dokumentu eta Artxiboen Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan abuztuaren 22an, euskaraz eta gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Euskadiko Dokumentu eta Artxiboen Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

Bestalde, kontuan harturik Lege Aurreproiektuaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak daudela, bete da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakian jasotakoa, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak xedatzen duenez, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du historia-, arte-, monumentu-, arkeologia- eta zientzia-ondarearen arloan, bere gain harturik halaber ondare hori espropiazioaren eta lapurretaren aurka babestearren estatuak ezartzen dituen arau eta betebeharrak betetzeko ardura (10.19 artikulua). Orobat, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du estatuarenak ez diren artxibategi, liburutegi eta museoen arloan (10.20 artikulua).

Eskumen horien babesean onartu zen uztailaren 3ko 7/1990 Legea, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa, gerora azaroaren 21eko 232/2000 Dekretuak, Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartu zituenak, eta uztailaren 22ko 174/2003 Dekretuak, Euskal

Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Sistemaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoak, garatutakoa.

Halaber, aipatzekoak dira abenduaren 1eko 7/2006 Legea, Euskadiko Museoei buruzkoa, eta urriaren 26ko 11/2007 Legea, Euskadiko Liburutegiei buruzkoa.

Orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuaren bitartez Euskadiko Dokumentu eta Artxiboak arautuko dira. Aurreproiektuaren Atariko Tituluan xedapen orokorrak jasotzen dira (1-4 artikulua), I. tituluan dokumentuak eta dokumentu-ondarea arautzen dira (5-17 artikulua), II. tituluan Euskadiko Artxiboen Sistema eta dokumentu-kudeaketa (18-30 artikulua), III. tituluan irispidea (31-33 artikulua), eta IV. tituluan zehapen-araubidea ezartzen da (34-38 artikulua). Azkenik hiru xedapen iragankor, xedapen indargabetzailea (Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen III. tituluko VI. kapitulua eta IV. tituluko I. kapitulua, gehi arau berriarekin talka egiten duen maila bereko edo apalagoko xedapen oro indargabetuko duena) eta azken xedapena daude.

Aztergai dugun Lege Aurreproiektuan ez dago hizkuntza aipurik, eta arauak ez du eraginik izango hizkuntzen erabileraren ikuspegitik.

Halere, herri administrazioek hainbat egintza burutu beharko dituzte lege berrian agindutakoa betetzeko, eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea betetzeko (5.2.a, 6.1 eta 8. artikulua) euskara eta gaztelania erabili beharko dituzte kanpora begira, herritarrek haiekin dituzten harremanetan nahi duten hizkuntza ofiziala, ahoz zein idatziz, erabiltzeko eta arreta hizkuntza berean jasotzeko duten eskubidea bermatuz

Bestalde, aztergai dugun Lege Aurreproiektuan kide anitzeko organo bi aipatzen dira, Euskadiko Artxiboen Kontseilua (21. artikulua) eta Dokumentazioa Ebaluatzeko, Hautatzeko eta Eskuratzeko Batzordea (22. artikulua) hain zuzen. Bi organoak dokumentu-ondarearen eta artxiboen eskumena duen sailari atxikita egongo dira, eta osaera eta funtzionamendua erregelamendu bidez ezarriko dira.

Bi organo horien atxikipen publikoa ikusita, herri administrazio ezberdinetako edo arlo pribatuko kiderik balego horietan, eta Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea kontuan hartuta, osaera eta funtzionamendua erregelamendu bidez arautzerakoan bermatu beharko litzateke kideek bilkuretan euskara eta gaztelania erabiltzeko aukera, deialdi, gai-zerrenda, akta, ziurtagiri eta beste idazkietan Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera aurreikusiz.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2014ko irailaren 12an.

Ángel Lobera Revilla  
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria